



B1 maila | Idazmen-proba



Idazmena

Egitekoa

Jarraian proposatzen zaizkizun bi gaietako **bat** aukeratu behar duzu, eta, ondoren, eskatzen zaizuna kontuan hartuz, idazmen-proba egin.

Oharrak:

- Idazteko, boligrafoa erabili.
- Garbi idatzi, eta saiatu letra argia egiten.
- Orrialde marradunetan idatzi.
- Gogoratu gutxieneko hitz-kopurua bete behar duzula. **Gutxienez, 140 hitz idatzi behar dituzu.**
- Idazlana egiteko, **60 minutu dituzu.**

Ebaluazio-irizpideak

B1 mailarako helburuak kontuan hartuta, idazlana zuzentzeko irizpideak:

Egokitasuna

Eskatutako gai, solaskide eta xedearen araberako lotura. Solaskideen harreman-motari eta xedeari dagokion tonua. Lexikoaren modalizazioa.

Koherentzia

Idea nagusien eta lagungarrien hari logikoa. Diskurtsoaren egitura, garapena eta hurrenkera logikoa. Ideien osotasuna.

Kohesioa

Esaldi, paragrafo eta testu osoa elkarlotzeko testu-antolatzaileen erabilera eraginkorra. Puntuazio-sistema. Kohesio-mekanismoen erabilera: anafarak, ordezkapenak, elipsiak.

Aberastasuna

Hizkuntz baliabideen ugaritasuna eta barietatea. Esaldi landuen eta horien baliokideen erabilera. Ordezkapen lexikalen erabilera.

Zuzentasuna

Gramatika-arauen erabilera zuzena: ortografia, deklinabidea, aditza, morfologia, sintaxia... Gaiari loturiko lexikoa.

Aukeratu proposatzen diren bi gai hauetatik **bat**:

1. gaia: Ikastetxeko jantokia

Lagun batek mezu hau bidali dizu posta elektronikoz:

Kaixo, aspaldiko!

Zer moduz? Presaka nabilenez, daukadan arazoa aipatuko dizut berehala: nire bikotekideak lana aurkitu du, eta gure semeak, hemendik aurrera, ikastetxeko jantokian bazkaldu beharko du. Ume berezia da jateko. Oso jaki gutxi jaten ditu; makarroiak, arroza eta ogia, batez ere. Badakit zure alaba iaz hasi zela jantokian bazkaltzen. Horregatik idazten dizut, nolako esperientzia izan zenuten jakiteko.

Eskertuko nizuke azkar erantzutea.

Laster arte!

Eginkizuna:

Idatzi e-posta zure lagunari. **Kontatu** lagunari zer esperientzia izan duen alabak jantokian. **Azaldu** jantokian bazkaltzearen alde onak eta txarrak. **Eman** lagunari balioko dion **aholkuren bat**.

Erantzun lagunari **e-posta** bidez. Gutxienez, **140 hitz** idatzi beharko dituzu.



2. gaia: Motorra erosi nahi

Lagun batek mezu hau bidali dizu posta elektronikoz:

Kaixo!

Ondo al zabilta Gasteizen? Azken egunotan zurekin gogoratu gara Mertxe eta biok. Kontua da gure alabak motorra nahi duela Donostian zehar ibiltzeko. Hamasei urte bete ditu, eta, neurri batean, ez da harritzekoa motorra nahi izatea! Joni, zure semeari, orain bi edo hiru urte erosi zenioten motorra, ezta? Zure iritzia nahi dut motorraren inguruan.

Besarkada bat!



Egitekoa:

Idatzi e-posta zure lagunari. **Kontatu** lagunari zure semeak motorrarekin izan duen esperientzia. **Azaldu** zein diren motorra erostearen alde on edo txarrak. Bukatzeko, eman lagunaren alabari balioko dion **aholkuren bat**.

Erantzun lagunari **e-posta** bidez. Gutxienez, **140 hitz** idatzi beharko dituzu.